

1. PRIBATASUN POLITIKA

1.1. Tratamenduaren Arduradunaren Identifikazioa

Erabiltzaileak ematen dituen datuak BILBAO RIA 2000, S.A. –k tratatuko ditu. Aipatutako honek (aurrerantzean “Arduraduna”), egoitza soziala José M^a Olabarri kalean, 4, C solairua, 48001 Bilbao, eta A48530356 ZEK eta ondorengo puntuan jasotako helburuak dauzka. Arduradunarekin kontaktatzeko, br2000@bilbaoria2000.com gure posta elektronikoa edo, nahiago izanez gero, gure telefono zenbakiaren bidez egin daiteke: 946613500.

1.2. Tratamenduen helburuak

1. Doakionak Arduradunari helerazten dizkion galderei erantzutea.
 - 1.1. Gordetze epea: Datuak doakionak planteatutako kontua argitu arte gordeko dira.
 - 1.2. Oinarri juridikoa: Doakionaren baimena.
2. Bere parte-hartzea Arduradunaren hautaketa-prozesuetan kudeatzea.
 - 2.1. Gordetze epea: Datuak bi (2) urtez gordeko dira.
 - 2.2. Oinarri juridikoa: Arduradunaren bidezko interesa langileak hautatzeko.

Adierazten dizugu emandako baimena edozein momentutan ken dezakezula eta horrek ez diola bidezkotasunik kenduko Arduradunak aurretiaz tratatutakoari.

1.3. Zure datuen hartzaileak

Arduradunak hirugarrenekin tratamenduaz arduratuko direnak kontratatzen ditu, bere zerbitzuak eman ahal izateko. Konkretuki, Arduradunak akordioak, jarraiko zerbitzu hornitzaile hauekin sinatuta dauzka:

- Microsoft Corporation, Privacy Shield akordioak posta elektronikoaren hornitzaile legez babestua. Informazio gehiago, honako honetan: <https://www.privacyshield.gov/participant?id=a2zt0000000KzNaAAK&status=Active>
- Irontec, S.L. web-ahokaleku hornitzaile legez.

Aipatutako erakundeei salbu, zure datuak ez dira beste inori emango. Arrazoiren batengatik zure datuak beste hirugarren batzuei eman beharko balitzaie, aurretiaz jakiaraziko zaizu eta hala badagokio, zure onspena eskatu eta komunikazioaren helburuak eta zure datuak jasoko dituen hirugarren horren nortasuna zehaztuko zaizkizu.

Guzti hori, legezko errekerimendu batek aipatutako datuak hirugarren bati komunikatzea agintzen duen kasuetan izan ezik.

1.4. Eskubideak

Beren datuak ematen dizkiguten pertsonak, aipatutako horiei dagozkien eskubide hauek dauzkate:

- a. Sartzeko eskubidea
- b. Zuzentzeko edo kentzeko eskubidea
- c. Tratamendua mugatzeko eskubidea
- d. Eramangarritasunerako eskubidea
- e. Aurka egiteko eskubidea
- f. Baimena baliogabetzeko eskubidea

Zure eskubideei buruzko informazio gehiago lortu nahi baduzu, Datuak Babesteko Agentzia Espainiarraren web-orria bisitatzea gomendatzen dizugu.

Eskubide hauek br2000@bilbaoria2000.com helbidera emaila bidaliz gauzatu daitezke, argi adieraziz zein eskubide gauzatu nahi duzun eta zure nortasun agiriaren kopia bat gehituz zure nortasuna egiaztatu ahal izateko. Baita ere, Arduradunaren egoitza sozialera postaz jo dezakezue, Pribatasun Politika honen 1go puntuan agertzen den helbidera.

Era berean, Kontrol Agintari eskudunaren aurrean –kasu honetan Datuak Babesteko Agentzia Espainiarra- erreklamazioa aurkezteko aukera daukazula jakinarazten dizugu, bereiziki zure eskubideen erabilera atsegina izan ez bada. Datuak Babesteko Agentzia Espainiarrarekin, 901 100 099 eta 912 663 517 telefono zenbakietara deituz edo bere bulegora joanez (Jorge Juan kalea, 6. 28001 – Madril) kontaktuan jar zaitezke.

1.5. Datuen jatorria

Lortutako datu guztiak doakionarengandik datoz.